

# IKASLEAREN AGENDAREN DIGITALIZAZIOA



**URBI IKASTETXEKO 4. MAILAKO IKASLEAK: Iñigo eta Maren**

# ***Ikaslearen agenda digitala***

## **Laburpena:**

Urbi institutoko 4.DBH-ko ikasleek proiektu honetarako ideiatu duguna agenda digital bat da. Honen helburua ikasle bakoitzak bere etxerako lanak eta azterketak idazteko eta ondoren mugikorretik edo ordenagailutik ikusi ahal izatea da.

## **Arazoak:**

Agenda arrunta erabiltzen ari gara betidanik eta ez da oso praktikoa nonbaiten zaudenean orrialde askoko agendatxo bat atera behar izatea jakiteko biharko etxerakolanik dituzun.... Orduan gure asmoa orri mordo horiek digital bihurtaraztea da eta honela erabil beharrezko bakarra ordenagailu, mugikor edo edozein aparatua elektronikoa bat da, guretzako klaseko beharrezko informazio guztia online hodeian gordeta eukiteko.

Agendarekin hainbat urte daramagu eta honen desabantailak behatuz gero berrikuntza asko egin ahal zirela konturatu ginen. Arazo bat adibidez zen agenda galtzen edo etxean ahaztuta bazenuen ezin zenuen etxerako lanak, proiektuak, ezta oharrak hartu. Edo adibidez gaixorik gaudenean ez ginen konturatu zein lan zeuden noizko irakuuri behar genuen liburu bat adibidez. Batzuetan zerbait aurkitzea deserosoa izan ahala zen. Azkenik irkaslea ezin

zen idatziz gurekin komunikatu eta batzuetan gaizki-ulertuak sortzen ziren. Hau da agenda honek ikasleak laguntzeko eginda egon arren, ere irakasleak lagundu ahal ditu.

## **Erabilitako materialak:**

Guk material ugari erabili ditugu ideia hau martxan jartzeko. Lehenik eta behin gure ikastetxeko Chromebook-ak behar izan ditugu eta izan dira proiektu osoan erabili dugun material fisiko bakarra. Hantxe aplikazio ugari erabili ditugu baina guretzat oinarritzkoena drive izan da, han sartu eta orrialde batean gure proposamenak, ideiak, eta abar idatzi ditugu. Ondoren kalkulo horri bat erabili dugu proiektuarekin hasteko. Azkenik aplikazio bat izatea nahi genuenez MIT App Inventor 2 (aplikazio bihurtzeko) aplikazioa erabili dugu.

## **Metodologia**

Agenda sinple bat egiten hasi ginen google orri batean eta hobetuz joan gara erabilgarriagoa izateko, ikusi genituen arazoei aurre eginez.

### 1-Kalkulu orri sinplea

Kalkulu orri sinple batekin hasi ginen, agenda fisikoaren antzekoa eginez.

Egun bakoitzeko 7 lerro jarri genituen. Lehenengoan asteko eguna jartzeko eta besteetan eguneko saio bakoitzeko oharrak gehitzeko.

### 2-Formulak, lana ez errepikatzeko

Gero ikusi genuen formulak erabili behar genituela aurreko astekoa saioen izenak kopiatzeko. Horrela urte batetik bestera, edo talde batetik bestera kalkulu orriaren kopietan aldatu beharreko bakarra lehenengo klase eguna eta lehenengo asteko egun bakoitzeko saioak izango dira.

### 3-Behar ez dena eskutatu

Gero ikusi genuen hobe zela jai egunetan ez erakustea 7 errenkada, baizik eta bakarra. Horretarako beste zutabe bat gehitu jai eguna zela adierazteko. Beste zutabe bat gehitu genuen kalkulu orriari adierazteko zein errenkada ezkutatu behar diren.

Ikasleak ikusi behar ez dituen zutabeak eskutatu geintuen.

### 4-Formatua

Formatu baldintzatuak erabili ditugu, jai egunak eta asteburuak beste kolore batez markatzeko, eta baita ere aurreko egunetakoa oharrak.

### 5-Informazio partekatua.

Azkenik hirugarren zutabe bat gehitu dugu. Bertan ordezkariak edo taldeko irakasleek taldeko agenda konpartituan jarritakoa ikus daiteke. Beste orri batetik inportatutako zutabea da hori.

# Emaitza

Ap10-Igandea		
Ap11-Astelehena		
Tutorretza		
Matematika	Etixerako 128. orrialdeko 2,3,4.	
Ingelesaz		
Euskera		Azterketa. Aditzak
Frantsesa2		

Egindako agenda hemen daukagu.

Hiru zutabe ditu. Lehenengoan data eta klase ordua. Bigarrenen gure oharrak. Hirugarrenean irakasleek edo ordezkariak talde osorako jarritako oharrak..(Hemen ikusi ahal da igandea kolre laranja dagoela asteburua delako.Eguna berdez aterako da,hilabetea,eguna eta asteko eguna adierazten.Egun horretan dituzun arloak eta larrosez agertzen direnak etxerako lanak daudela adierazten dute.Grisez dauden laukitxoak egun hori jada pasatu dela adierazten digu.Azkenik larros argia adierazten du irakasleak idatzitako oharrak. )

Egindako agendara sartu gaitzke helbide hau jarraituta:

[https://docs.google.com/spreadsheets/d/1ox6lspZZvBxwOuoCWcmrg1-IA6r-dc\\_wdN3xBV28eYuk/edit?usp=sharing](https://docs.google.com/spreadsheets/d/1ox6lspZZvBxwOuoCWcmrg1-IA6r-dc_wdN3xBV28eYuk/edit?usp=sharing)

Helbide honetara heldu gaitzke ere QR kode honen bidez.



## **Hobekuntzak.**

Egindako lana hobetzeko kalkulu orria aplikazio batean bihurtzea gustatuko litzaiguke. Mobilen pantailak txikiak dira eta ez da guztientzako erreza agendan zehar mugitzea. Botoiak jarriko genizkioke data jakin batera arinago joateko eta bilaketak egiteko.

Baita ere egin daiteke hobekuntza bat hurrengo egunerako daukagun lanak emaila jasotzeko

## **Eskerrak**

Guk geneukan arazorik handiena ez genekiela programatzen izan zen, beraz gure maisuari eskatu genion laguntza eta hark irakatsi zigun beharrezkoa zena gure ideia martxan jartzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Jon gure irakasleari gure ideia martxan jartzeko kalkulu orriekin lan egiten emandako laguntzagaitik gure